

BALIOAK LANTZEN FP EUSKADIN 21-22



AURKIBIDEA

EUSKADIKO LANBIDE HEZIKETAN BALIOAK TXERTATZEN	3
BALIOAK 4.0 MASTER CLASS.....	4
BALIOAK 4.0 ETA ETHAZI.....	5
IKASTETXEEN ESPERIENTZIAK.....	6-12

ZENBAIT DATU:

Ikusten duzuenez, 2021 – 2022 ikasturte honetan 33 ikastetxe ari dira proiektuan parte hartzen. Irakasleen inplikazioa eta konpromisoa funtsezkoa izaten ari da balioetan oinarritutako prestakuntza-ibilbide hori aldaketa-eragile profesionalen belaunaldi berrira iristeko.

BALIOAK 4.0	21-22	21-20	20-19	19-18	18-17
IKASTETXE PARTEHARTZAILEAK	33	29	21	14	7
IRAKASLEAK FORMAKUNTZAN	20	28	52	41	24
IRAKASLEAK FORMATUTA (DENETARA)	165	145	117	65	24
ZIKLO PARTEHARTZAILEAK	102	76	48	37	13
IKASLEAK	2710	1520	960	740	260



EUSKADIKO LANBIDE HEZIKETAN BALIOAK TXERTATZEN

Balioak 4.0 FP Euskadiko lan-ildo bat da, eta haren bidez **balioetan oinarritutako prestakuntza** Euskadiko Lanbide Heziketako heziketa-zikloetan integratu nahi dugu. Horrela, gure heziketa-zikloak egiten dituzten pertsonak, FP Euskadiko ikaskuntza-ereduaren bidez entrenatzen ditugun beren lanbide-arloko gaitasun teknikoiez gain eta gaitasun pertsonal eta sozialez gain, oinarri etiko sendoa garatuko dute pertsona eta profesional gisa.

Posible al da profesional ona izatea gutxieneko etiko batzuk gabe?

Interesgarria iruditzen al zaigu gure ikasleek bidezko erabakiak hartzea, gizalegez eta gizatasunez jokatzeko edo errealitatearen ikuspegi kritikoa izatea? Hortaz, gaitasun profesionalaz gain, balioak ere landu beharko ditugu.

Balioak 4.0 lan-ildoak proposatzen duen prestakuntza-ibilbideak hiru bloke hauek lantzen ditu:

1. Erantzukizun kolektiboaren ideia iristeko erantzukizun indibidualaren printzipioa eta garrantzia.
2. FP Euskadiko Balioak 4.0: elkartasuna, inklusioa, ekimena eta interdependentzia.
3. Enpresaren Gizarte Erantzukizunaren hiru irizpideak: gobernu ona, ingurumena eta gizarteak.

Ikasleengana iritsi ahal izateko, ezinbestekoa da **irakasle-taldean prestakuntza**. Irakasleek proiektuak proposatzen duen prestakuntza-ibilbidea ulertu behar dute, gelako eronketan eta dinamiketan txertatu ahal izateko eta egunerokoan balioen begirada txertatzeko. Helburu horrekin, Tknikako Ikaskuntza eta Errendimendu Handiko Arloak formakuntza bat antolatzen du, eta bertan parte hartzen duten irakasleek balioak beren heziketa-zikloan integratzeko plan bat diseinatzen dute.

Gainera, aurreko ikasturteetan trebatutako **irakasle-taldean bidelagun** izaten jarraitzen dugu, beren irakaskuntza-lanean balioak txertatzen ari baitira. Horretarako, balioekin zerikusia duten gaiak buruzko hitzaldiak eskeintzen zaizkie (etika profesionala, kulturartekotasuna, balioen eta zeharkako gaitasunen arteko erlazioa) eta topaketak egiten ditugu. Topaketa horietan, irakasleek eskuzabaltasunez partekatzen dute zer egiten ari diren beren heziketa-zikloetan balioetan oinarritutako prestakuntza txertatzeko. Ideiak taldean partekatuz eta eztabaidatuz, balioak dituzten profesionalak prestatzeko helburuan ikasi eta aurrera egiten dugu.



ETA GURE INGURUKO ENPRESETAN ZER?

BALIOAK 4.0 MASTER CLASS

Balioak 4.0 prestakuntza-ibilbidearen azken blokean Enpresaren Erantzukizun Sozialaren hiru irizpideak lantzen dira: gobernu ona / etika, ingurumena eta gizartea. Alderdi horiek kontuan hartzen ari al dira gure inguruko enpresak?

Ikastaro bakoitzean gure inguruko enpresa bat gonbidatzen dugu, Gizarte Erantzukizunaren irizpideak integratzeko eta Garapen Iraunkorrerako Helburuetan proposatutako helburuak betetzeko eraldatzen ari diren moduz hitz egin diezagun.

21-22 ikasturte honetan, **ORBEA**ren laguntza izan dugu. Master Classa Tknikan egin zen eta Euskadiko LHko zentro guztietan jarraitu ahal izan zen streaming bidez. Bertan, FP Euskadiko ikasleei zuzendutako hitzaldi bat eskaini ziguten, enpresan balioek eta iraunkortasunak etorkizuneko apustu gisa duten garrantzia modu praktikoa eta errealean ikusteko.

Joan den ikasturtean **Mondragon Corporation**ek eskaini zuen «Enpresak Gizarteari Ekarpena» Master Class-a eta Tolosaldea LHIn egin zen.

19-20 ikasturtean **TERNUA GROUPE** azaldu zigun gauzak **NOLA** egiten dituzten lehenetsi dutela **ZER** egiten dutenen gainetik. Ingurumen-arazo globalei irtenbidea emateko toki-eremu txiki batean esku hartu duten proiektu bereziak ezagutu genituen. Horretarako, beren lehenetasunak aldatu besterik ez zuten egin.

Era berean, aurreko ikasturteetan **DHL** multinazionalak eta **ULMA** Taldeak beren Master Classak eskaini zituzten, enpresen erantzukizuna zergatik den enpresen lehiakortasun-abantaila berria azaltzeko, eta ezagutu ahal izan genuen zeintzuk diren pertsonentzat eta planetarentzat balio ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa sortzen saiatzen diren enpresa-praktika arduratsu horiek.

Gure ikasleak irizpide horietan trebatzea, etorkizun iraunkorrako eta gizatiarrako bat sortzen laguntzeak dakarren erronkaren mailan egoteko prestatzea da.

BALIOAK 4.0 ETA ETHAZI

FP Euskadiko ikaskuntza-ereduak jokaleku ezin hobea eskaintzen du balioen prestakuntza ere lantzeko; horregatik, **Balioak 4.0 lan-ildo ez da ildo independentea, baizik eta ETHAZI ikaskuntza-eredua aberastera datorren lan-ildo da**, hezkuntza-komunitatean gure egunerokoan egiten dugun guztian balioen begirada emanez. Kontua ez da 'beste gauza bat' egiten hastea, baizik eta egiten duguna balioen ikuspegitik begiratzea. Adibidez: gure zikloaren erronketako bati gehitu al diezaiokegu 'zertarako bat' eta elkartasunezko erronka bihurtu? Eta landu nahi ditugun kompetentziak definitzerakoan balioak kontuan hartzen baditugu? Gauza bera al da talde-lana balio batzuen arabera eta balio horiek gabe? Gauza bera al da balioekin komunikatzea eta baliorik gabe komunikatzea? inklusioari buruz hausnartu al dezakegu talde-kontratua lantzen dugunean? Zikloko irakasle talde bakoitzak hausnarketa egin eta balioen begirada nola txertatu erabakiko du.

BALIOAK 4.0 ETA EKINTZAILETASUNA ERDI MAILAKO HOTZ- BERO ZIKLOAN TXERTATZEN

CIFP USURBIL LANBIDE ESKOLA LHII

Balioak 4.0 erronketan txertatu asmoz Ekintzaitzaren kultura ikusi du aukera ezin hobea Instalakuntzak eta Mantenu familiakoa den erdi mailako Hotz-Bero zikloko irakasle taldeak, beraien zikloan lanketa egiten hasteko.

Balioak eta ekintzaitetasuna, ezinbesteko bi lan ildo, zikloa bere osotasunean landu ahal izateko. Erdi mailako irakasle taldea irakasle bezala, eta ikastetxeko partaide bezala, bakoitzak duen arduraren jabe izatetik hasi da lanean.

Nola txertatu hau guztia ikasgelan? Erronka honi erantzun nahian, etengabeko hobekuntza bidean, Instalakuntzak eta Mantenu Erdi Mailako zikloko lehen mailan orain arteko erronkei "**balioen betaurrekoak**" jartzea erabaki da. Aurrez zeharkako ziren moduluak erronketan guztiz barneratu ditugu, eta Balioak 4.0 proiektua abian jarri. Honen adibide garbia izan dugu aurtengo bigarren erronka "Planeta Eskoria".

2. ERRONKA: "PLANETA ESKORIA"

Zikloko Modulu Espezifikoa	"Zeharkako" Moduluak	Balioak 4.0.
Aurrez diseinatutako erronkatik abiatuta hozkailu bat Otik diseinatu eta muntatzea.	Gaitasun teknikoak nola osatu lan mundurako, bai langile gisa, edota enpresaburu gisa.	Nolako gizartea nahi, halako langile eta enpresaburuak sustatu behar ditugu. Erronka honetan Arduraren Sozial Korporatiboa zentratzen gara.




BALIOAK GURE ERRONKETAN TXERTATUTA

CIFP BIDASOA LHII

IT2 erdi mailako ziklo teknikoak izanik, Balioak 4.0-aren ezarpena ikaskuntza-prozesuan ahalik eta era naturalenean txertatzen saiatu gara. Tknikatik proposatutako ibilbidean oinarrituta, lehen bi blokeak 1. kurtsoan landu ditugu eta hirugarrena 2. kurtsoan.

Blokeak eta tailerrak Moodle txertatu ditugu jarduera ebaluarriak bihurtuz. Halaber, ikasturte honetan, erronken berrantolaketa eta irakastaldean mugimenduak izan ditugun arren, tailerrak normaltasunez egin ahal izan ditugu.



Irudietan, Moodle-en erronka desberdinetan Balioak 4.0 duen presentzia ikus daiteke.

Irudian, kokapen erronkan txertatutako Balioak 4.0 proiektuaren aurkezpena eta

"Mundua salbatzeko gida" jardueran parte hartutako ikasle taldea. Etorkizuneko teknikari arduratsuk hezten.





ERRONKA SOLIDARIOA ETA INKLUSIBOA GOIERRI ESKOLAN

CPES GOIERRI ESKOLA BHIP

Balioek egungo gizartean eta Industria 4.0 testuinguruan duten garrantziaz jabetzeko eta hausnarketa egiteko, Goierrri eskolan hainbat ekintza egiten dira. Beraien artean bat aipatzearen, 21-22 ikasturtean Fabrikazio mekanikoko diseinuko goi mailako zikloko, 2.mailako ikasleek **Zumalakarregi museoarekin elkarlanean** egin duten **erronka** azalduko da.

Fabrikazio mekanikoko diseinuko zikloko 2.mailako ikasleek, 21-22 ikasturtean, Zumalakarregi museoa, Begiris elkarte (Gipuzkoako itsu edo ikusmen urritasuna duten pertsonen inklusioa sustatzeko elkarte) eta beste agente batzuekin elkarlanean, Ormaiztegiko zubiaren maketa, ukitu daitekeena, egin dute. **Inklusioa, solidaritatea, interdependentzia, elkarlaguntza, iniziatiba, ardura, enpatia, garapena, sormena...** balioak landuz.



IKASLEEN BALIOEN LANKETAREN ALDE APUSTU BEREZIAN

CIFP TOLOSALDEA LHII +

CPES TOLOSAKO INMAKULADA LANBIDE
IKASTOLA BHIP

Gure ikasleen balioen lanketaren alde apustu berezia egiten dugu. Horregatik, besteen artean, urtean zehar ditugun egun seinatu batzuren harira **sentsibilizazio ekintza anitzak** antolatzen ditugu. Kasu honetan Emakumearen indarkeriaren aurkako egunean **bi ikastetxeen artean ohikoa dugun elkarlana** martxan jarri genuen.

Eguna gerturatu ahala, TOLOSALDEA LHIIIn Esther Povedak “La otra historia” monologoa eskeini zigun, non emakumearen ibilbidea jorratzen zuen eta berdintasuna lortzeko borrokoa zergatik egiten den azaltzen zuen. Bestetik, TOLOSAKO INMAKULADA LANBIDE

IKASTOLAn Indarkeria matxistaren barruan zehazki indarkeria sinbolikoaz edo “mikromatxismoez” hitz egin genuen, Enara Larrainek eskeinitako hitzaldi bat jasoz eta ondoren taldeekin lanketa eginez.

Egun honetarako, TOLOSALDEA LHII ikastetxeko Egokitzapen Fisikoko 1. mailako ikasleei **erronka** bat proposatu zitzaien ikasturte hasieran: Tolosaldeako gizarteari, gorputza landu eta zaintzeko ekintzak antolatzea.

Saio hau prestatzeko, kontuan hartu beharrekoak ondorengoak ziren:

- Gehienez 45 minutuko saioa adin tarte desberdinentzako modukoa.
- Saio bakoitzaren helburu eta ezaugarriak definitu.
- Beharrezko baliabideak aurreikusi eta zerrendatu.
- Saioak gidatu.
- Ebaluazioa egin eta dokumentatu.

Ezagutza tekniko hauetatik abiatuta, ikasleek honako beste gaiak lantzea izan zuten helburu:

- Adimen emozionala eta soziala.
- Pertsonen arteko harremanetan hitzzeko eta hitzik gabeko komunikazioaren garrantzia.
- Norberarena ez bezalako iritziak eta taldearen erabakiak errespetatzea duen garrantzia.
- Gatazkak kudeatzeko teknikak eta estrategiak ezagutzea.





ABENDUAK 10, GIZA ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO EGUNA

CPES LEA-ARTIBAI BHP

Lanbide Heziketako goi mailako Administrazio eta Finantzak zikloko ikasleek, 1948ko Giza Eskubideen Aldarrikapena landu dute. Besteak beste, guztiok berdin babesten gaituen dokumentu legal unibertsala dela eta denok eskubide horiek munduko bazter guztietan errespetatzeko eta defendatzeko erantzukizuna dugula ikasi dute.

Nazio Batuen Batzar Nagusiak Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala onartu zuen 1948ko abenduaren 10ean. Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala dokumentu historiko bat da, pertsona orori pertsona bezala dagozkion eskubideak aldarrikatzen dituen, arraza, kolorea, erlijioa, sexua, hizkuntza, iritzi politikoa edo bestelakoa, jatorri nazionala edo soziala, posizio ekonomikoa, jaiotza edo beste edozein baldintza alde batera utzita. 500 hizkuntza baino gehiagotan

dago eskuragarri eta mundu osoan gehien itzuli den dokumentua da.

Dokumentu hau 30 artikuluz osatuta dago eta hauek lantzeko, bi tailer ezberdin burutu dituzte. Lehen tailerlean, giza eskubideei buruzko bideo bat ikusi eta taldeka aztertu dute. Bigarren tailerlean, giza baliabideak hausten dituzten irudi ezberdinak landu ditugu, irudi bakoitza zein artikulurekin lotzen den eztabaidatuz. Bukaeran, ikasleek egindako lanketa guztia partekatu da.

Lanean ari ziren bitartean, Giza Eskubideen erreferentzia egiten duten musika entzuten egon dira: Anje Duhalderen Bakezaleak, John Lennonen Imagine, beste batzuren artean.

EKINTZAILEAK EREDU

CIFP DON BOSCO LHII

Jasangarritasunean oinarritzen den BASK arropa markako bi kide izan genituen Don Boscoko Elektronika eta Telekomunikazio sailean, beraien proiektuaren berri ematen. Jasangarritasuna bere osotasunean ulertzen dute; ingurumena, pertsonak, transparentzia, ardura eta ekonomia barne dituen.

Don Boscoko Ingurumen Sailak, Balioak 4.0 proiektuaren babesarekin antolatua du, **GJHko** (Garapen Jasagarriko Helburuak) hainbat helburuez gain, gure ikastetxeko balioekin eta ingurumenarekiko errespetuarekin bat datorrelako enpresa honen filosofia.

Ikasleak gustora entzun zituzten, ekintzaile diren gazte hauen gorabeherak eta esperientziak. Ikasleetako edonork izan ditzakete egun horretako hizlariak erreferente, beraien enpresa propioak sortuz, gizarte guztiarengan pentsatuz eta denon etorkizunean oinarrituz, etekin ekonomikoa helburu nagusia izan gabe.





INKLUSIOA TOLERANTZIA

CIFP MONTE ALBERTIA LHII

Arraza desberdintasunak, kultura, erlijioa lantzen eta honen inguruan hausnarketa egin dugu Ile-apainketako Estilismoa eta Zuzendaritzako ikasleekin.



EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURKA

AEG IKASTETXEA

Azaroaren 25an, gure Ikasle Batzordeak Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunean, kontzentrazio bat antolatu zuen jolasgaraian. Helburua, indarkeri mota lazgarri hau salatzea izan zen, eta zentru osoak parte hartu zuen, bai ikasleak (Informatika, Enpresa eta Ehungintza) eta baita irakasleak ere.



BALIOEN BETAURREKOAK

LAUDIOALDE LANBIDE ESKOLA

Instalazio Elektriko eta Automatikoetako Erdi Mailako ikasleek balioen betaurrekoak jarri dituzte aniztasunaren aberastasunean, pertsona guztiek errespetuz tratatuak izateko duten eskubidean eta positiboki bizitako bizikidetzan sakontzeko.

ZIG GELAKOekin ELKARLANEAN

CIFP IZARRAITZ LANBIDE HEZIKETA LHII

“Mendekotasun egoeran daude pertsonen arreta” zikloko 1. mailako ikasleak Azkoitia BHIko ZIG gelara joatan gara sarritan, eta beste hainbatetan beraiek etortzen dira elkarlanean egiten ditugun ekintzetan parte hartzeko.





NIRE TALDE IDEALA

CENTRO SAN LUIS

Talde lana edonorentzat erronka bat da. Gaitasun horiek ikasgelan lantzea ezinbestekoa da ikasle bakoitzaren garapen profesionalerako. Helburua da proiektu komun batean elkarrekin lan egitea, eta ikustea zer zaila izan daitekeen lana bera eta haien arteko bizikidetzeta.

Bizipen hori garatzeko, hiru hileko batean "Nire talde ideala" izeneko dinamika landu dute. Dinamika horrekin, talde perfektuak eta taldekideek izan behar dituzten balioak aztertu behar dituzte.

Baina kontua ez da besteak baloratzea bakarrik. Erronka hori aprobetxatuz, beren taldeari eta zeregin komun bati zer balio ematen dizkieten aztertzeraz eraman ditugu.



Gida
deskargatu

LAN-INGURUNE INTEGRATZAILEETAN ADIMEN-URRITASUNA DUTEN PERTSONEI LAGUNTZEKO PRAKTIKA EGOKIEN GIDA

CPES EGIBIDE BHIPI

Gida hau EGIBIDE Lanbide Heziketako Zentroak eta HAR-EMAN elkarteak elkarrekin garatutako proiektu baten esparruan sortu da, eta FUNDACIÓN VITAL FUNDAZIOAREN laguntza izan du hura garatzeko.

Gidaliburua EGIBIDEren Gizarteratzeko Goi Mailako Heziketa Zikloko ikasleek diseinatu eta prestatu dute, irakasleen eta laneratzearen arloan lan egiten duten erakundeen laguntzarekin. Horretarako, ezgaitasun intelektuala duten pertsonak beren plantilletan sartu dituzten enpresen esperientzia hartu da oinarri.



GUZTION ARTEAN, TOLOSATZEN

TOLOSAKO INMAKULADA LANBIDE ESKOLA

Gazteen boluntarioritza azoka antolatu genuen urriaren 27an Tolosako Udaleko Gazteria, Komunitatea eta Gobernantza eta Gizarte Zerbitzuen sailek eta Inmakulada ikastetxeak. Azokaren helburua izan zen gazteen artean boluntarioritza sustatzea eta gune bat sortzea non gazteek boluntarioritza proiektuak ezagutzeko aukera izango zuten, gizarte eraldatzaile eta herritar konprometituak izateko.

ARROPA BILTZEA

CIFP NICOLAS LARBURU LHII

30 familia baino gehiagoko eta 1.000 ikasle baino gehiagoko gure ikastetxean, gero eta gehiago dira gure 4.0 Balioen proiektua kontuan hartuta egiten diren zeharkako ekintzak, hala nola Zinema Ikusezina, A25, 8M(interzikloak), Ekonomia Zirkularra, RSC,... EKOLARBURU, Mugarik gabeko ekonomialariak,... Ikasturte honen adibideetako bat da, Patroigintzatik eta Modatik abiatuz, Erronka zeharkako gaitasunak landuz hasten da, eredu berriak berriro diseinatzeko erabilitako arropa bildu ondoren, EKINTZAILEaren Egunari amaiera emango dion desfilearekin amaitzeko.

Horrela, ikastetxe osoak parte hartu du prozesuan.



KONTSUMO ARDURATSUA

CPES SAN LUIS BHIP

Black Friday (Azaroaren 26a) oso ezaguna egin da, jendeak kudeatzen ikasi behar duen erosketa oldarkorraren bolumen handia sortzen du, eta hori kontzientzia-arekin hasten da. Gure ikasleekin dinamika berezi bat egin nahi izan dugu, ikasgelan IKTak erabiliz.

Dinamikak galdera hau egiten du: zer erosi behar zenuen Black Friday-n? Erantzunak eta estatistikak lortzeko, Mentimeterren aplikazioa erabiltzen dugu. Ikasgelan, pertsona bakoitzak erantzun zuen APParekin mugikorrean.

Marketinaren aurpegi ezkutua eta atzean dagoena abiadura horretan kontsumitu ahal izateko, Banksyren Simpson-en bideoa ikusi dugu.

Bideo hau ikusi ondoren, gelak eztabaida batean parte hartu du, helarazi nahi genien mezua ondo interpretatu zutela egiaztatzeko.

Kontua ez da denda batzuetan erosteari uztea, baizik eta atzetik dagoena konturatzea. Horretarako, Balioak 4.0 ikastaroan emandako betaurrekoak janztera gonbidatzen zaituztegu, John Carenterren "Están vivos" (1988) filmean Johnnek egiten duen bezala.



MARTXOAK 8, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

CPES LEA-ARTIBAI BHIP

Egun eta etorkizunean ere emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko tresnarik onena hezkuntza da. Ikasleekin hausnarketaren eta aldarrikapenaren bitartez hainbat ekintza antolatu ditugu.

Martxoaren 8an, berdintasuna landu eta emakumeak bistaratzeko helburuarekin ondoko jarduerak hauek burutu ditugu:

- Ikastetxeko ikasle, irakasle eta lankide guztien artean musuko moreak banatu dira.

- Hausnarketa lantzeko galdetegi bat egin dute ikasleek. Batxilergokoek taldeka landutako ondorioen "izenburuak" honako hauek izan dira:

- Espero dugu egunen baten egun hau ospatzeko beharrik ez izatea.
- Ez zoriondu gaurko egunean baizik eta borrokatu.
- Martxoak 8 ez da zoriontzeko egun bat, borrokatzeko egun bat baizik.
- Egun bat berdintasuna ospatzeko baina 365 egun praktikan jartzeko.
- 8M egunero da.
- Mundua morea da.
- Nahiago dut egun hau nirekin ez ospatzea eta nirekin borrokatzea beste 364ak.
- Berdintasuna aldarrikatzeko egun bat da.

- Batxilergoko neskek irrati saio berezia egin dute.

- Ikasle eta langileok batera elkarretaratzeko egun dugu.

DINAMIKA IRISGARRITASUN UNIBERTSALA

CIFP EMILIO CAMPUZANO LHII

Emilio Campuzano LHII LHiko Eraikuntza Proiektuen Zikloko 1. mailako ikasleek, FEKOORen (Bizkaiko Ezgaitasun Fisiko eta/edo Organikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzailearen) eskutik, Bilbon zehar egindako ibilbide batean, ikusi ahal izan dute zein oztopo dituzten ezgaitasun desberdinak dituzten pertsonak. Gure hirietako oztopo arkitektonikoez kontzientziatzeko balio izan die, formakuntzako proiektuei eta etorkizuneko lan mundurako erronkei aurre egiteko aukera eman die.



Hiriko ibilbidea gurpil-aulkian eta itsuentzako bastoi gidariarekin



OSASUNA, PILAR AUZOTIK PASEOAN

IES FRANCISCO DE VITORIA BHI

Gasteizko El Pilar auzoko programa soziokomunitarioa da, eta Francisco de Vitoria BHI, La Habana Osasun Zentroa, El Pilar Gizarte Etxea eta El Pilar Adinekoen Zentro Soziokulturala hartzen dute parte. Helburu nagusia parte-hartzaileen harreman sozialak eta ohitura osasungarriak indartzea da. Halaber, elkartasuna eta boluntarioratz bezalako balioak lantzen dira ikasleekin.



HONDAKINAK PREBENITZEKO ASTEA

CIFP MIGEL ALTUNA LHII

Aste betez, toki berean pilatu zen eskolan sortutako zabor guztia. Ikusgarria!

JOSTAILU BILKETA

CIFP MIGEL ALTUNA LHII

Ikastetxeko ziklo guztietan, Gabonak aurretik, Balioak 4.0 proiektuko lehen tailerrak landu ondoren, Fabrikazio Mekanikoko 2PM3A1 taldekoek Ikasenpresan sortu zuten JOSTALTUNA enpresatik jostailu bilketa egitea pentsatu zen. Bildutako jostailu guztien banaketa Gipuzkoako ACESMA (Asociación de Cubanos y extranjeros "Sierra Maestra") elkartearen bidez bideratu zen. Ikaragarria izan zen!



ZIENTZIA NESKEN KONTUA BADA

CIFP TXURDINAGA LHII



LA CIENCIA SÍ ES COSA DE CHICAS

Día Internacional de la Mujer y la
Niña en la Ciencia

Emakumeek eta neskek zientzian erabateko eta bidezko parte-hartzea izan dezaten, Nazio Batuen Batzar Nagusiak otsailaren 11 Emakume eta Neska Zientifikoaren Nazioarteko Eguna izendatzea erabaki zuen.

Egun hau ospatzeko, zientziaren eta teknologiaren euskal sarea ezagutarazten duten 17 erakundeekin bat egin dugu ekimen global honekin, eta ahaleginak batu ditugu publiko guztiei zuzendutako jarduera-programa oso bat aurkezteko.

Gure helburua da zientzian parte hartzen duten emakumeen lana ikusaraztea, jarduera zientifikoak eta teknikoak gizonen kontua direla sinestearekin haustea eta neskek zientzietako ikasketak aukeratzera bultzatzea.

BALIOEN INTEGRAZIOA ARMERIA ESKOLAN

ARMERIA ESKOLA

Armeria eskolan, ETHAZI metodologian lan egiten dugu ziklo denetan, eta ikastetxean txertatuta ditugun balioak jorratzen dira, hala ere, erdi mailako Instalazio Elektriko eta automatikoetan, froga pilotua egiten ari gara Tknikak bideratuta, besteak beste Balioak 4.0 landu eta ikasleekin praktikan jarritz.

ELKARTASUN ASTEA

CIFP TOLOSALDEA LHII

3 Ekintza burutu genituen elkartasun astean.

Urtarrilak 24ean, Odol bankuko kideak etorri ziren eta irakasle eta ikasleek odola emateko aukera izan genuen areto nagusian.

Urtarrilak 25 HARRERA SARETIK bi gazte etorkin etorri ziren beraien esperientziak kontatzera eta "en la calle" dokumentala ikusi genuen.

Aste osoan zehar janari eta arropa bilketa egin genuen eskolan. Jasotako janaria Elikagai bankura eraman genuen eta arropa berriz Herritarren harrera sarera.



12



“BASOA SENTITU” EKIMENA

CIFP IZARRAITZ LANBIDE HEZIKETA LHII

Ekimen honek, basoa sentitu, ezagutu eta beste begi batzuekin ikustea du helburu. Tailer ezberdinak burutu genituen bertan, entzumena, ikusmena, gozamina eta sormena landuz. Bestalde, talde kohesioa ere lantzeko aukera izan genuen.

Gustuko esperientzia izan zen ikasleentzat, oso positiboki baloratua izan zen.

